
AIAKO HARRITAN

Doinua: Aurten mudantza berria
Neurria: Neurri berezia. Zazpi puntukoa
Testuaren iturria: Inazio Eizmendi Basarri. 1992. Nere bordatxotik. Auspoa. 98 or.



Iñaki Eizmendi *Basarri*
(1913 Errezil – 1999 Zarautz, Gipuzkoa)

Basarri 1936ko gerran, ihesi, Frantziara joan zen itsasontziz. Amak eskatuta, Zarautzera etorrialdi bat egin zuenean ordea, salatu egin zuten eta "Batallon de trabajadores"-etan sartu zuten preso: langileak esklabu lanetan edukitzen zituzten. Basarri Aiako Harrien magalean, Aritxulegiko mendi-lepoan zegoen "Batallon de trabajadores"etan eduki zuten, Oiartzundik Lesakarako errepidea eta tunelak egiten.

Une gogorretan umore onari eutsiz jarri zituen bertso hauek Basarrik. Gerora, sorta hau askotan abestuko zuten Uztapide eta Basarri lagunek elkarrekin, bi ahotsetara, otorduosteetan.

1 Nork egin du gure **galde**?
Aiako Harritan* **gaude**
baina beti bezain **trebe**
tralarala, tralarala
lanean gogoz aritzen gera
soldatarik jaso **gabe**
berrehun nagusi **badaude**
gure artaldean **jabe**
guk umore ona **halare**!
tralarala lara…
Guk umore ona **halare**!

2 Hotz-aldi eta **goseak**
ta barau egun **luzeak**
guk baditugu **paseak**
tralarala, tralarala
gorputzari on egiten nunbait
gailur hontako **haizeak**
nola baigeran **gazteak**
sano dauzkagu **hesteak**
ez egonarren **beteak**.
tralarala lara…
ez egonarren **beteak**.

3 Goizean ekin **lanari**
egunsentian **pozgarri**
txori guziak **kantari**
tralarala, tralarala
ezin atera gentzake orain
inoiz adinbat **izardi***
erdietan gaude **geldi**
ahal degunean **exeri**
zertan nekatu **gehiegi**?
tralarala lara…
zertan nekatu **gehiegi**?

4 Oiartzungo **neskatilak**
muxu-gorri **biribilak**
izan zaitezte **abilak**
tralarala, tralarala
zertan maitatutzen dituzute
kaleko ume **zirtzilak**?*
Aitxulei*-n daude **trankilak**
saltzeko dauden **opilak**
pare gabeko **mutilak**.
tralarala lara…
pare gabeko **mutilak**.

* ***Aiako Harritan*** = *mendi izena*
izardi = *izerdi*
zirtzilak = *zarpailak*
Aitxulei = *Aritxulegi mendi-lepoa, Oiartzun eta Lesaka artean*